



SEXU MUXU

NERABEZAROKO HAURDUNALDIA



Zer da nerabegaroko haurdunaldia?

Nerabegaroko haurdunaldia edo haurdunaldi goiztiarra emakumezko nerabe batek izaten duena da. OMEren iritzian, 10 eta 19 urte arteko adin-tartea hartzen du nerabegarokoak. Pubertasuna, berriz, ugalkortasun-adinaren hasiera da.

Nerabegaroko haurdunaldi gehienak gogoz kontrakoak dira: ez da batere ohikoa hain gaztea izanda ama izateko erabakia hartzea.

Gertatzen denean, ordea, haurdunaldia nahita gertatu edo ez, garrantzitsua da hainbat gauza garbi edukitzea.

Erantzukizuna

Sexu-harremana izan duten bi pertsonak, mutilak eta neskak, **ERANTZUKIZUN BERDINA** dute haurdunaldiarekiko.

Horrek esan nahi du, haurra izatea erabakiz gero, biak arduratu beharko dutela hura hazteaz eta zaintzeaz, bai haren ongizate fisikoari eta bai psikologikoari dagokionez.

Adopzioa

Haurdun zaudela jakin ondoren, ez baduzu haurdunaldia borondatez eten nahi, hau da, ez baduzu nahita galdu nahi, baina, era berean, ezin baduzu edo ez baduzu zure haurra hazi nahi, adopzioan emateko aukera duzu.



Aholkuak.

- Haurdun geratu bazara, bila ezazu laguntza eta sostengua, zure hurbilekoen artean: bikotekidea, familia, lagunak, osasun arloko profesionalak, irakasleak, gizarte zerbitzuak, eta abar.
- Egin ezazu haurdunaldiaren ganorazko jarraipena, zure **osasun-zentroaren** bidez, ama izatea erabakitzen duzun momentutik hasita.
- Zoaz erditzea prestatzeko saioetara.
- Bila ezazu jaio berria nola zaindu jakiteko informazioa.

Amatasun goiztiarrak eragindako zailtasunak

- Nerabegaroko haurdunaldiari loturik egon ohi dira **osasun-arazo batzuk, hala amak nola haurrak izaten dituztenak**. Bai amaren eta bai haurraren osasuna hobea izan ohi da amak, gutxienez, 18 urte baldin baditu.
- Nerabegaroko haurdunaldiak **aurreratu eta azkartu** egiten du:
 - Emantzipazioa.
 - Bikoteak eratzea.
 - Seme-alaba gehiago izatea.
- Aldiz, **atzeratu egiten du helduen bizimoduan sartzea**. Ama nerabeak:
 - Geroago hasten dira lanean
 - Asko kostatzen zaie lan finko bat lortzea (lortzen badute)
- Bikote gehiago desegiten dira. Heldutasuna ez ezik, lana eta egonkortasun ekonomikoa falta ohi zaizkie.